

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 24

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

maiatzak 5

Jakingo duzueenez, atzo, maiatzaren 4an mahai parekidea izan genuen eta hauek dira jorratu genituen gaiak.

2008KO LEP

Egutegia

Gaur bertan argitaratu dira behin betiko zerrendak. Hauek atera ostean 10 egun daukagu behar diren dokumentuak aurkezteko. Beraz, maiatzaren 16ra arte.

Aurkeztu behar diren dokumentuen artean, ziurtagiri medikua dago eta badakigu mediku batzuk oztopoak jartzen dituztela ematerakoan, edozein arazo izanez gero Partzuergoarekin jarri harremanetan.

Hala ere, maiatzak 30ean plazen banaketa izango da.

Plazak

Maiatzaren 22an, banatuko diren plazak zeintzuk izango diren jakingo dugu, baina Gasteizko 40 plaza banatuko dira.

Esleipenean 686 lanpostuen artean 500 esleituko dira eta langile bakoitzaren erabakiaren ondorioz, haurreskola bakoitzean zein langile geratuko da kontratu gabe aterako da. Hau da, ordezkapen zerrendaren arabera puntu gutxien duen hezitzaileen plazak joango dira banatzen.

Esleipena Eibarren izango da, institutuaren aretoan. Plazak banatzerakoan txanda ezberdinak egingo dira eta bakoitzean 100/125 pertsona sartuko dira eta haien artean ordubeteko tartea egongo da.

Txanda bakoitzeko esleipena ematen den bitartean, atak itxiak egongo dira, eta langileren bat berandu ailegatuz gero hurrengo txandako lehenengoa izango da aukeratzeko.

Banatu gabe geratzen diren plazak, ekainaren 5ean emango dira.

Kontratuak ekaina aldean sinatuko ditugu baina iraileko datarekin.

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 24

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

maiatzak 5

2009KO LEP

2009ko apirilaren 27an, EHAAn argitaratu zen deialdia eta 235 plaza eskainiko dira.

Atzoko batzarrean egutegia aurkeztu ziguten.

Matrikula aurkezteko epea ekainaren 8tik 27ra arte izango da eta azterketak azaroan izango dira, BECen.

Azterketarako gaitegia ia-ia berdina da, haurreskolaren antolakuntza eta funtzionamendu esku liburua eta Curriculum berria kenduta, hau dela eta gaitegia aurten erabili duguna izango da, zalantzagarri izan diren galdera batzuk kenduta eta aipatutako bi gauza berri hauei buruz gehitutako galderak.

EUSKERA ETA TITULAZIO EZ DAUKATENEN EGOERA

Aurrekoetan, komentatu dizuegun bezala, 2009ko LEP azaro ostean egin nahi izan da, data honetan euskara edo titulazio ez zeukatenei ateratzeko epea bukatzen zitzaielako.

Egutegia dagoen moduan, azterketa azaroan izanda, langile hauei ez zaie ematen aurkeztu ahal izateko, hau dela eta, 2009ko RPTan hain plazak ez dira agertzen eta, behintzat, kurtso horretan zehar, mantenduko ziren haien plazetan.

BAREMAZIO/BIRBAREMAZIOA

Dakizuenetz, gai honen inguruan eztabaida luzea izan da baina azkenean, STEE-EILASetik proposatu genuena aurrera atera da.

Beraz, atzo Partzuergoak konpromiso hartu zuen ekainean birbaremazioa egiteko, nahiz eta bakarrik barruko zerbitzuak zenbatu, hau da, ofizioz egingo dizkigute.

Honez gain, aparte jardunaldi eta lurraldea aldatu ahal izateko beste epe bat zabalduko da.

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 24

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

maiatzak 5

STEE-EILAS -etik PROPOSATUTAKO BESTE GAIAK

SOLDATA

Orain dela gutxi, %3ko igoera jasoko genuela jakinarazi genizuen. Atzo, Partzuergoak aitortu zuen igoera gehiago izan behar dugula, baina zenbatekoa erabakitzea hurrengoei (gobernuari) dagokiela.

Honez gain, jakin genuen atzerapenak kobratu ahal izateko hurrengo lan hitzarmenaren sinadurara itxaron beharko dugula.

KOORDINATZAILE ORDEZKOEN PIZGARRIA

Dakizuenetz, gai honen inguruan ez gara ados jartzen, Partzuergoak hilabete natural bat edo 3 aste izan behar dela esaten baitu eta STEE-EILASetik ez dugu amore ematen lehenengo egunetik izan beharko zela pentsatzen dugulako.

Dena den, Hilabete naturala egin duten guztiei ordaintzen hasiko dira eta geroago, hartzen dugun erabakiaren arabera ordainduko zaigu, beti ere, atzeraeraginezko efektuarekin.

ZONALDEKO ZERBITZUAK

STEE-EILASetik uste dugu zerbitzu hau ez zela eskaini behar eta eskaintzekotan gutxieneko baldintza batzuekin eman beharko zela pentsatzen dugu eta horrela jakinarazi diegu.

ARRATSALDEKO UME KOPURUA

Gure ustez, ordezeko arazoa dela eta, haurreskolak zabaltzeko ume kopurua kontuan izaten den moduan, kontuan hartu beharko zen arratsaldean hezitzaile bat ordu bat baino gehiago ume bakar batekin geratzea.

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org